

bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak.



Gehiago jakiteko

Jaso dugun natura ondare aberatsa mehatxupean dago eta gure herri identitatea islatzen duten ezaugarriak arriskuan.



natura 2000



biodibertsitatea
eta paisaia
BIODIVERSIDAD Y
PAISAJE

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE,
PLANTZATZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA




Obra Social "la Caixa"

Ondare anitza

Klima mediterraneoaren eta atlantikoaren eraginak, lurrazal mota ezberdinek, mendiek, eta gure arbasoek lurra landu eta erlazioatzean errespetuz egin izanak eman digute natura eta erdi-natura inguruneen aniztasuna. Gune horiek osatzen dituzte gure eguneroko paisaiak, edo haurtzarokoak, eta beren baitan izaki aniztasun handia gordetzen dute.

Espezie kopurua gure aitona-amonek edo gurasoek utzitako natura ondare aberatsaren isla baino ez da. Ondare hori gure nortasun kulturalaren zati ere bada, eta erronka handia suposatzen du: gai izango al gara gure ondorengoei jaso duguna hobeto, edo gutxienez berdin uzteko?



Euskadin ia 400 animalia ornodun espezie bizi dira, 3.000 landare espezie baino gehiago eta gutxienez 800 ornogabe.

Gaur egun naturarekin dugun harremanak gure herriko hainbat landare eta animalia espezie mehatxupean jartzen ditu.

Azken urteotan naturaren babeserako neurrietan aurrerakuntzak lortu diren arren, oraindik ere landare eta animalia espezie batzuen populazioek behera egin dute. Gainbehera azkar eta konstante hori ez da espezie arraro edo gutxituetan bakarrik gertatu. Ikerketa berriek argi ikusarazi dute espezie arrunten populazioen beherakada nabaria, esaterako hegatzabal arrunta, txolarrea, txantxangorria edo urretxindorra.

Gaur egun, Euskadin, hiru ugaztunetatik bat mehatxupean dago; lau arrainetatik bat, bi anfiboetatik bat, bi narrastietatik bat, hiru hegaztietatik bat. Eta landareen %20 arriskuan dago!

Guztira, Euskadin 300 animalia ornodun eta landare espezie baino gehiago daude arriskuan!

Espezie itsastarrak daude arrisku gehien dutenen artean, gehiegizko arrantza eta kutsadura arazoak direla medio: ozeanoetan handitzen ari dira bizirik gabeko zonaldeak, oxigenorik ez dutelako; kostaldean oxigeno falta hori itsasora nekazaritzako ongarri gehiegi isurtzeak ekar dezake; kala ezagunen % 70 gehiegi ustiatuta dago . Ba al zenekien Europako marrazo eta arraien populazioen herena desagertzeko arriskuan dagoen bitartean , Espainiak egiten duela marrazo hegalaren Europako esportazioen % 95?

Lurrazalean, Bonelli arranoa, bisoi europarra, hegoaldeko zuhaitz-igela edo bagre arraia bezalako espezieak hain dira eskasak non beren biziraupena epe laburrean arriskuan egon baitaiteke.


Beste batzuetan, landareak eta animaliak arriskuan daude beren bizitokiak arriskuan daudelako.

Espezie ugari pairatzen ari diren izugarritzko beherakadaren arrazoi nagusia, bizi diren habitat naturalen degradazioa da. Hamarkada gutxi batzuetan pertsonen ekintzak ikaragarri areagotu dira (nekazaritza, basogintza, industria, energia, garraioa, hirigintza-hazkundera eta turismoa) habitat asko eta askoren galera edo zatiketa eraginez. Gero eta espazio gehiago hartzen dugu guretzat; eta gutxiago uzten dugu basa-bizitzarentzat. Basa-bizitza oso toki mugatueta txokoratu dugu; askotan isolatu egin dugu edo bata bestetik oso urrun utzi.

Era honetan, errekek eta erreka bazterreko basoek, estuarioek eta orobat gure kostaldeak hondamendi handia pairatu dute.



XX. mende hasieratik hona, Euskadiko kostaldeko ekosistemen % 75 desagertu da.



Beste habitat batzuk, antzina Bizkaia eta Gipuzkoa zati handi bat betetzen zuten harizti zaharrek, adibidez, orain ez dute bere eremu naturaleko zati txiki bat baino betetzen.

Euskadi barneko hezeguneen erdia baino gehiago desagertu dira, eta geratzen direnetatik asko oso hondatuta daude.

Gure baserriak inguratzen zituen landazabal atlantikoa eta Arabar Errioxako paisaia mediterranea mendeetan zehar mantendu izan dira artzaintza eta errespetuz egindako nekazaritzari esker. Baina gaur egun sega-belardiak utzi eta mahasti-hazkuntza ari da areagotzen, basa-espezieen aberastasuna, gure landa-paisaiaren aniztasuna eta honekin batera herri gisa identifikatzen gintuena, pobretuz. Nekazaritza intentsiboak bertako abere-arraza eta landutako barietateak galtzea dakar, izan ere, emankorragoak diren eta era intentsiboan ustiatzen diren kanpoko barietate komertzialek ordezkutzen dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoak, bere baldintza orografikoarengatik, garapen industrialarengatik eta populazio eredu sakabanatuagatik ahalegin handia egin behar izan du zonalde batzuetan ingurune naturala mantentzeko. Habitat naturalen galera, zatiketa eta isolamendua izan dira basa-landare eta animalien desagerpenaren arrazoi nagusiak Euskadin. Beste arrazoi batzuk ere egon dira: baso-landaketa industrialen hedapena, beste herrialde batzuetatik ekarritako espezie inbaditzaileen hazkundera, gure ibai eta kostaldeen kutsadura, gehiegizko arrantza edo arrantza ontzi handien sareetan kasualitatez harrapatzen diren mehatxupeko itsas-espezieak.